taren eskutik etorri zen. 70. hamarkadaren bukaera eta 80. hamarkadan krisialdi ekonomikoak, nazioarteko petrolioaren krisialdiaz eragina, itsasadarren industria-sektorea gogor jo zuen. Garapen industrialaren mende luzean zehar bestelako krisialdiak gertatu ziren, baina hau ezberdina eta behin betikoa izan zen eredu industrialaren bukaera ekarri zuelako, lehenengo enpresa handiak (*Altos Hornos de Vizcaya, Euskalduna...*) eta gero hainbat enpresa ertain eta txikiak siderurgia eta ontzigintzaren sektoreen mendekoak zirenak. Ordura arte, garapen industrialak bultzatutako paisaiaren aldaketa eta azpiegitura guztiak (Ontziolak, tranbiak, Deustuko kanala...) balio gabe eta zaharkituak gelditu ziren ia egun batetik bestera. Horiekin batera milaka lagunena lana eta bizi modua ere zahartuta gelditu zen. Langabezi tasa (1988an %38,5ekoa zen) eta ziurgabetasun soziala ezezaguna zen Deustun zein Bilbo Handian eta ezkortasuna gizarteko eremu guztietan hedatu zen. Eraldaketa guzti honen isla “*Altos Hornos de Vizcaya*” enpresa izan daiteke; ordura arte ekonomiaren motorra izan zena, Siderurgiaren Birmoldatze-Planean sartu zen eta horren ondorioz, garai hartan zituen 13.584 langileetatik 5.986 bakarrik geratu ziren eta 1996an, 1.830 langile geratzen zirelarik, behin betiko itxi egin zen. Dena den, deustuarren memoria historikoak Euskaldunaren itxiera prozesu honen sinboloa bihurtu du.

Bukatzeko, eta aurretik azpimarratu dugun euskal kulturarekiko ernabe-rritzearekin lotuta, gaur eguneko Prest! Aldizkariaren hastapenak 80. bukaera eta 90. hamarkadaren hasieran aurkitu ditzakegu. Xabier Gereñok (1992) bertako aldizkari honen garrantzia nabarmendu zuen: “*Idazleak eta irakurleak sortzen dituzte eta egunkari badietan lekuri ez dituzten arazoak eta gaiak erabiltzen dira aldizkari txiki horietan.[...] Deusto aldizkariaren 0 zenbakia 1990-ko ekainean irten zen. Hilerokoa denez, 1992-ko otsailean 17. zenbakia irten da. Ale bakoitzak 100 pezeta balio du, eta kioskoetan saltzen da. Suskriizio bidez ere lortu daiteke. Tirada, 3500 aletakoa da, eta edonork idazti deza-ke bertan, elkarrekiko errespetua gordez egiten bada.*” Auzoan, 1996 eta 1998 artean Hitzartu, euskarazko beste proiektu komunikatiboa, sortu zen. “Izan zirelako, bagara” onartzen du gaur eguneko Prest Aldizkariak atal bakoitzean.

1.6. Itsasadarra, Bilbo eta Deustuko eraldaketa (1990-2006).

Ezin dugu artikulu labur honetan Bilbo Handiko eskualdeko eraldaketa prozesu osoa bere konplexutasunaz azaldu. Bibliografia anitza da maila teori-koan (Harvey 2003, Castells 1998, Park 1999) baita Bilboko esperientzia zeha-tza aztertu duten publikazioek (Zulaika 1999, Esteban 2000, Merino 1987, Moreno 2005, Larrea eta Gamarra 2007). Ikuspuntu kritiko batetik, guk eral-daketa honen zailtasunak, eta batez ere, instituzioen inplikazio falta gogoratu nahi dugu. Agian baieztapenak ustekabeak hartuko ditu batzuk kontuan har-tuta egungo instituzioek eraldaketaren ondorio positiboak errentagarri egin nahi dituztelako euren eginkizuna goraiatzaren dute behin eta berri, baina

Marisol Estebanek (2000) esaten duen bezala, “*instituzioen arteko kolaborazioa handia beharrezkoa zela uste osoa ailegatzeko Bilbon eta bere ingurunean biri birsorkuntza prozesuak egin abal izateko, hamar urte baino gehiago luza-tu zuten euskal instituzioek*”. Prozesua luzea eta zaila izan zen, argi eta ilun askorekin eta nahiz eta ondorio positiboak nabarmenak izan batez ere itsasadarraren aldeetan, oraindik badaude eztabaidan dauden bestelako proiektu eta eskuhartzeak. Gure ustetan, orain arte prozesu honetan hain gutxi kontatu duen herritarren partaidetza barneratu behar dute instituzioek auzo eta hiria-ren etengabeko eraldaketa kudeatzeko. Hori dela eta, gaur eguneko Deustu-ko sare sozialak oso jarrera kritikoa mantentzen du barrutiko antolaketareki-ko.




6. irudia: Euskalduna Zubiaren eraikitze prozesuaren momentu bat.

Deustuarrek konplexutasun honi buruz hitz egin digute ondorio positiboak eta negatiboak identifikatzen. Aro industrialaren ondoren ezaugarritutako gehien baloratzen duten aspektua itsasadarren berreskurapena da. Zabortegia paseatzeko eta aisiaz disfrutatzeko lekua bihurtu da, auzoak bizkarra ematen behartu egin duen zonalde bat berreskuratu du eta honi sekulako garrantzia ematen diote deustuarrek. Argi dago Deustuko kokapen estrategikoa funtsezkoa izan dela eraldaketa ondorio positiboak jasotzeko baina oraindik, edo horre-

kin lotuta, bestelako hirigintza arazoak konpondu gabe daude: trafikoa auzo erditik, etxebizitzaren prezioak (“jende gazteak Deustun ezin dugu gelditu bizi etxeak oso garestiak direlako”) edo Deustuko Erribera eta Arangoiti auzoek bertara iristeko dauzkaten arazoak, besteak beste.

2. DEUSTUKO NORTASUN KOLEKTIBOA.

Hasieran azaldu dugun bezala, gure ekimenaren helburua zen ikustea deustuarrak zertan diren ezberdinak eta zergatik diren ezberdinak. Denok dakigu auzoak eta herriak desberdinak direla, hau da, nortasun desberdin bat dutela, baina zer da nortasun hori. Hori da nolabait pertsona berruan edo talde berruan sortzen den zerbait. Pertsona batzuk dira modu batekoak, familia berean, batzuk abertzaleagoak dira, beste batzuk dira sozialistagoak, beste batzuk feministagoak... horiek dira nortasunaren kontuak, segun ze koadrilan dabilen, segun aita edo amarekin nola konpontzen duten, segun ze sindikatuan dagoen, segun elizkoia den, segun elizara joaten den ala ez... Segun sozializatzen garen leku horietan, familia, koadrila, herria, nazioa, bai taldeak bai auzoak diferenteak gara. Guk badakigu katalanak diferenteak direla baina Erandioko biztanleak eta Deustukoak ere diferenteak dira, baina zergatik dira diferenteak? Hori da aztertu egin duguna.



Diferenteak gara bizipenak, edo nolabait elkarrekin auzo berean edo herri berean bizi dugunagatik. Meluccik, duela gutxi hil zen soziologo italiar distiratsuak, nortasuna pendulu bat moduan irudikatu zuen eta gu joaten gara alde batetik bestera, berdinak, gure taldeko berdinekin egiten dugu bat, baina noi-

zean behin diferenteeekin ere erreferentzia hartzen dugu eta iraunkorrak edo tradizionalak diren asuntu horiek errebndikatzen ditugu, baina gauzak aldatu egiten direnean aldaketa horiek onartzen ditugu, batzuetan bai, batzuetan ez, eta batasuna bilatzen dugu baina batzuetan ere multidimentsioa edo aniztasuna onartzen dugu eta berez, penduluak bezala, bi mutur horien artean mugitzen gara gure nortasuna definitzeko.

Prozesu honetan, Meluccik desberdintzen ditu hiru funtzio ezberdinak: ikastea, elkar-komunikatzea eta emozioak sortzea. Elkarrekin ikasten dugu hainbat gauza bai familian, kalean, elizan, auzoan, koadrilan edo gaztetxean. Elkar-komunikatu egiten dugu, horrexegatik, auzoko jaiak dira hain inportanteak, herri bateko jaiak, bai hemen, bai edonon, oso garrantzitsuak dira jendea elkar komunikatzen duelako inoiz baino gehiago eta azkenik, emozioak sortzea da prozesu honen hirugarren funtzioa.

Sozializazio prozesu konplexu horrek ez du identitate kolektibo bat bakarra sortzen, baizik eta batzuk. Nortasun anitz bat, edo Melucciren metafora erabiliz, musika kutxa bat, erresonantzia kaxa bat sortzen dugu non musika tresna desberdinek emaitza partikular eta berezi batzuk ematen baitituzten. Pertsona eta talde bakoitzak melodia eta partitura egokitu batekin egiten baitira.

Hizkera matematiko erabiltzearen, esan beharra dugu nortasuna edo identitatearen sorkuntza ez dela unibokoa, biunibokoa baizik. Hots, ez dela sortzen norabide bakarreko ibilbide batean, baizik eta joan etorrian. Geroxeago aztertuko ditugun “memoria lekuak, hiri edo auzo bateko sozializazio esparru edo toki berezi horietaz aparte, eta bertan harremanetan jartzen diren pertsona eta taldeekin dinamika aktibo eta elkarreagiketan egonik, giza harreman horiek espazio eta leku berezi horien sormen eta signifkazioak lantzen dituzte, eta leku horiek garrantzia eta sinbologia propioa hartu edo galtzen egiten dute, bertan mugitzen direnen gustuen arabera, modu dialektiko eta dinamiko batean.

Norbanako edo talde sozial baten nortasuna “ni” edo “gu” identitario hori besteen lehian, kontaktuan, elkar laguntzan edo oposizioan egiten dira, Deustukoak zein Bilbokoak ere, bere sinbolo, balio, eta interesekin.

2.1. Deustuko memoria lekuak.

“Desde Santurce a Bilbao” kanta tradizionallean, Deustua goraipatua suertatzen da bere tomateengatik. Gaur baratx txikiak salbu, tomateak potetan daude. Baina Deustuko bandera gorria ez da inoiz faltatzen, horiek baitira auzoaren sinbolo nagusiak. Gure elkarriketatu guztiek ez dute zalantza edo lotsarik izan, tomateroak direla esaterakoan. Gehienek pentsatzen dute aitzineko Deustuan tomate produkzio itzela zegoela, baina I.Villota apaizak esan zigun arabera hori baino gehiago tomate landareen salmenta eta hazien “bibe-roa” izaten zen Bizkaia osorako.

“Si bueno, el tomate, eso es una confusión de Deusto, Deusto no era famoso por las cosechas de tomates sino por la sementera. A Deusto se venía a comprar semilla de toda Bizkaia se venía a comprar la planta. Había gente que se dedicaba a sembrar tomate, luego ya venían los caseros y compraban la planta de tomate y se la llevaban. Ahora, Deusto tenía su producción, pero no para inundar España de tomates... En Deusto había una gran tradición hortícola y frutícula, es decir, los Rementería, los Orueta que fueron gente muy importante que estudiaron en París jardinería estuvieron muy ligados a la agricultura” (I.Villota).

Edozein kasuan, eta errakuntzaz aparte, sinboloak eta mitoak ez dira lojikoak eta bere kabuz funtzionatzen dute errealitatearekin zerikusi handirik izan gabe eta gaur egun Bilbon, Deustun eta Bizkaia osoan dakigu deustuarren sinboloa tomate bat dela.

“Azpimarratu egin beharko zen “tomatearena”, ze da gauza bitxia... Biburtu da Deustuaren ikurra, leku guztietan deustuarrak lotzen dira tomateekin eta edozein taldek dauka bere armarian edo pegatiñan... beti agertzen da tomateren bat. Kuriosoa da, ze arangoitikoak... jaietako sinboloa da tomate bat eta tomate horren gainean daude etxebizitzak. Aspaldi ez dago tomateak ebaina bere garaian ba zeunden, aspaldian, eta gebien bat izango zen bandera dela eta... Ze... bandera zen gorria. Deustuko, gebien bat hor Sani aldean daudenak, beno zeudenak (tomateak)... hor ematen zuen eguzkia egun osoa... baina bueno, hori... ez dakit egia izango den ala ez... (Borja Sarriaindia)

Azalpen honen ondoren, Deustu nolakoa den aztertzeraz goaz, jakiteko, lehenengo eta behin, deustuarrak non biltzen diren eta deustuarrak non dauzkaten haien leku inportanteak, non dauden memoriarako lekuak. Gaurko soziologo eta antropologo batzuek esaten dute aireportuak, hotel eta museo erraldoiak... “ez lekuak” direla milaka pertsona biltzen dira eta oso harreman gutxi ematen direlako, jendeak handik pasatzen da, baina hori bakarrik, eta ez da harreman sozialik sortzen. Horren kontra eta Deustuko kasuan, guk elkarriketetan adineko jendearekin izan garenean, askotan beste garaiko “memoria lekuak” nostalgiaz beteta gogoratu dituzte eta esan digute: “Ai, zelako urte horiek frontoia zegoenean...”. Hurrengo aipamen honek oso ondo adierazten du:

“Ya te digo, allí nos reuníamos, en el entorno de la iglesia y en el entorno del frontón... Yo ya el frontón lo he conocido partido por la mitad. El frontón de Deusto, actualmente, no sé si sabes dónde está. Pues eso es ahora y es totalmente nuevo. Antes, el frontón iba, mira, por toda la avenida del Ejército, que hoy es Lebendakari Agirre y la cabecera, el frontis, estaba en la Escuela de Idiomas. Cuando se hizo la carretera, se

partió por la mitad y quedó el trozo, el trozo que nosotros utilizábamos que es el trozo que está, como te digo, en la Escuela de Idiomas. Tremendo, tremendo...y luego, cuando ya se hizo la Escuela de Idiomas se trasladó al otro lado pero el entorno del frontón de Deusto que jugábamos mucho a pelota, y la parroquia era nuestra, de críos, allí era nuestro juego...”. (Mikel)

Argi dago, Doni Petri inguru hori eta frontoia, behintzat goikoherriko memoria leku garrantzitsu bat dela eta izan dela. Beste leku garrantzitsua Deustuko zubia dugu. Gerra garaian, Eusko Jaurlaritzak txikitu zuen zubia frankistak euren atzetik ez joateko baina zubia beti izan erreferente bat, azken finean, zubia izan da Bilbok behar zuen pasalekua “Ensanche” horretatik Deustuko urbanizazioa egiteko.



7. irudia: Deustuko historian hain garrantzitsua izan den Deustuko Zubia botata, 1937an.

Auzoaren izena du, noski. II. Errepublikara garaian diseinatu zen, behin Deustu Bilbora anexionaturik egonez gero, Deustuk elizatea Abandorekin lotu behar zen, hori dio Ruiz de Olabuenaga soziologoak bere liburuan “Bilbao, la ciudad soñada”. Ignacio Villota eta Txema Luzuriaga, Deustuko historiagileak ere, Deustuko zubiaz diote, Errepublikara hasi zuena, jeltzaleen bataioek apurtu zuten

Santanderrera ihesaldian eta Francoren diktaduraren hasieran bukatu egin zen. 70 urterekin helduenek gogoratzen dute, altxagarria izanik, zernolako ilararak eta atzerapenak suertatzen ziren itsasontziak pasatzerakoan. Gero 90. hamarkadan zabaltzeari utzi egin zion eta etzunduta gelditu zen betirako.

“Mira, el puente de Deusto... te puedo contar alguna anécdota de lo que solíamos hacer en el puente de Deusto porque estábamos zumbados, pero era muy divertido. Había unas barreras allí, y cuando yo iba a clase, y se encendía el semáforo rojo, y zas, que iban a abrir, de repente, porque iba a pasar un barco, y echábamos a correr. Y nos daba igual, no nos importaba, si pasábamos de la mitad de esta hoja, empezaba subirse... y nos daba igual, aunque estuviera subiéndose...yo, y muchos otros... Había un guardia, y nos gritaba, pero nos daba igual, salías corriendo, pero es que esperar a que se abra esto y se cierre entero te jugabas el llegar media hora o tres cuartos tarde a clase, y claro... salías corriendo, y ya calculabas que si ya pasabas cuando estaba se iba a empezar a abrir o justo se estaba abriendo ya pasabas al otro lado, y por muy rápido que fuera a subir, que subía muy lento, ya me daba tiempo a pasar, ¿no?. Y eso lo solíamos hacer... (Mikel)

Saio berriagotan, gainbehera industrialarekin “Euskalduna” ontziolako guda luzea zubian bertan gertatu zela gogoratzen digute gure interlokutoreek, eta batera fabrika horren langile asko Deustun bizi zirela ere.

Zubia eta gero 60. hamarkadan Deustuko kanala egin zen eta kanalak Behekoherri eta Goiherrikoren arteko behin betiko deskonexioa ekarri zuen. Gaur Deustuko Erriberan bizi den emakume batek, deustuarrek ondo ezagutzen duten kronika gogoratzen digu:

“La desconexión empieza con el canal. En el 58 empieza el exploramiento, pero no se abre directamente hasta el 68. Hasta entonces no lo llenan de agua. Entonces, hasta que no se llena de agua, la gente sigue yendo andando a Deusto; a comprar, al médico... todavía en esa época, cuando se llenó el canal había tiendas, supermercados... y luego poco a poco han ido desapareciendo” (Almudena).

Beste memoria leku garrantzitsuak futbol zelaiak dira, futbol eta futbolaren inguruan sortzen eta indartzen baitira herri askoaren nortasun kolektiboak. Deustun “Potongo” bada beste leku berezi bat, unibertsitatearen atzean zegoen bainatzeko leku txiki bat eta deustuarrek goraipatzen dute askotan, gaur egun oraindik, hogeita hamar urteko gazte batzuek esaten dute horra joan direla bere lehenengo zigarroa erretzera, beste era esanda, bere lehenengo kontrolik gabeko kontuak egitera euren koadrilakoekin.

Deustuko Unibertsitatea kasu berezia da, instituzio hau ezaguna da, mundu guztian ezaguna da Deustu unibertsitateagatik, baina zoritxarrez Deustuko

Unibertsitatea eta Deustu oso harreman gutxi izan dute. Instituzioak ez dio auzoari erreparatu baina ikasleak bai, etorri dira poteoan, pisuetara, manifestazioetara... baina Deustuko Unibertsitateaz gain, Sarrikoko Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Fakultatea dago eta baita ere Arangoitiko Magisteritza Eskola. Deustu auzune unibertsitarioa izan da eta unibertsitateaz gain ikastetxeak ere, La Salle eta Salesianos aipatu behar dira; denek izan dute inportantzia handia auzoaren sozializazioan.

2.2. Deustuko bizitzaren pertzepzioak

Mende baten barrena, asko dira herri txiki baten *modus vivendi*-n ematen diren aldaketak. Deustu gaur egun, Bilboko hiri mapan integraturik agertzen da, guztiz. Bere tunel eta zubi eta pasarela berriekin. Deustu horrela, bai Txorierri-ri eta Abandori ere ondo josita dago eta ibaian zehar muga geografikoak mantentzen dira behetik Lutxana-Erandioaren arteko arroka-pasabidean eta goitik, Deustuko Unibertsitateak egiten duen muga Matiko-Uribitarterekin.

Deustu hiria bihurtu da, herria izateari utzi dio. Lehen kontaktu gehiago behar zen Bilborekiko eta gaur ez hainbeste. Hori bai, Deustuko zaharrek nekazal giroa gogoratzerakoan kontraste handia egiten dute gaurko gazteen irudiarekin, baina kuriosoki batzuk eta besteok diote Deustun kaleko jendea elkar ezagutzen dutela.

“Mi marido se ha prejubilado ahora y alguna vez que hemos dado un paseo se sorprende de cómo puedo conocer a tanta gente, cómo me puede hablar tanta gente... entonces, eso da un poco idea de que salimos a la calle y sigue habiendo ambiente de barrio, de que nos conocemos... Creo que Deusto tiene su identidad... está arraigada... Yo hace seis meses que no he pasado el puente. Somos autosuficientes, tenemos colegios, tenemos correos, tenemos médicos, tiendas... No necesitamos del resto de Bilbao (con risas). Si hay conciencia de barrio, y si luchamos entre todos por conseguir, eso, un barrio mejor...” (M.Jesus/Izaera).

Bilboko mapan Deustu ertz batean dago, Errekalde moduan, baina Erribera edo Arangoitiko kasuak aparte, Deustu betidanik Bilborekin ongi komunikaturik egon da. Metroa, Artxandako tunelak eta garraio publikoaren hobe-kuntza deustuarren mugikortasuna erraztu dute, nahiz eta Erriberan eta Arangoitin garraio publikoarekiko kexak eta protestak egon azken urteotan. Dena den, gogora ekarri nahi dugu Erriberako birmoldaketarekin auzo elkarteak mahai gainean jarri zuen proposamen ausarta “autorik gabeko auzoa”⁶.

⁶ Ikus,- Iñaki Barcena (2004)- “¿Zorrozaurre sin coches? Si, gracias”. en A.Garrido & R.Alcock (eds): Foro para un Zorrozaurre Sostenible. Asociación de Vecinos “Euskaldunako Zubia”. Bilbao.

“Otra característica del Deusto de hoy que yo recalcaría es que está bien comunicado, tanto hacia dentro, es decir, tanto hacia el mismo Deusto, con los centros por una parte alrededor de San Ignacio y por otra parte alrededor de la Iglesia, como hacia fuera. Hacia fuera Deusto está muy bien comunicado porque tiene salida hacia Bilbao centro o bien hacia otros territorios, otros ayuntamientos como pueden ser Erandio, Sondika o Enekuri... A diferencia de otros barrios no tienes grandes cuevas que siempre tienen una dificultad añadida entonces eso ha posibilitado que sea un sitio bastante bien aceptado por un tipo de gente de clase media, alta. Ha habido una serie de edificaciones que han posibilitado eso, algunas otras edificaciones también pero menos. Y bueno, han quedado una serie de pueblos un poco abandonados como puede ser Arangoiti, como puede ser La Ribera, como puede ser el final de Elorrieta pero la mayoría del distrito 1, del distrito de Deusto tiene una vitalidad bastante buena”. (Txema Luzuriaga).

“Jendea deustuarra sentitzen da... igual bizitza propio duelako eta gauza asko egiten duzulako eta egin abal duzulako hemen Deustutik atera gabe. Ez dakit, beste jendea... Zentzu hori mantentzeko, askotan herri batzuetan ez dago aukera erosketak egiteko herrian, edo... Hemen denetarik egiteko aukera daukazu. (Borja Sarrionaindia)

Metro berriak hiru geltoki ditu Deustun (Deustu-Sarriko-S.Ignacio) eta deustuar guztiek positiboki baloratzen dute aldaketa hau, ahaztuak izan ezik.

“Metroaz adibidez, Sarrikon egin beharko lukete tunel bat Erribera-ri begiratzeko, Sarriko azpian aterako zena eta horrela Erriberako zentro-rik metroa 10 minutura. Baita zubi batzuk ere, Levante plazaren altueran. Metroak balio dezake konektatzeko eta hori ez da planteatu ere egin, espero dugu egun batean egitea”. (P.Alaña)

“Nosotros pedimos dinero para los guardias tumbados (montículos para aminorar la velocidad) que hay en la carretera. Estuvimos esperando un tiempo determinado y los la concedieron. Pero los guardias no se llevan muy bien... Actualmente, con los autobuses que estaban debajo del puente de Deusto, acudimos al Consejo porque Isabel Sanchez Robles era encargada de este consejo y además era concejala de transportes. Entonces tuvimos contacto con el distrito en aquella temporada porque era una pasada que los autobuses, después de las grúas y camiones, estuvieran yendo y viniendo toda la noche y todo el día, de todo Bilbao a la Ribera. Era el colmo. Estuvieron 3 meses. Y a cambio tuvimos que dar el autobús 11. Nos dieron el A4 pero tuvimos que dar el 11... Pero fue una especie de trapicheo.... Estamos desconectados, en el olvido por parte de las instituciones. Incluso mucha gente piensa que el barrio es solamente donde se acumulan los coches que

lleva la grúa. Y de hecho han venido con el parking de camiones al final de la península, el depósito de coches, basura, la discoteca con la que tenemos un montón de problemas ahora. Todo el fin de semana lleno de coches, de ruido... es terrible. Hay mogollón de denuncias. (Robert y Almudena).

Deustukoek ere, beste *Botxoko* auzotan gertatzen den bezala, duela ehun urte bezala jarraitzen dute “Bilbora noa” esaten, baina horrek ez du ukatzen Deustuk izan duen integrazio ekonomiko, sozial eta urbanistikoa Bilbo berrian. Deustuko interklasismoak “bizitza onaren” sentsazioa ekarri du, salbuespen batzuk kenduta.

“Deusto se está convirtiendo en un barrio caro... Antes nos casábamos y veníamos a Deusto a vivir porque era dónde podíamos construirnos el piso... Pero ahora le gente tienen que salir de Deusto porque no pueden vivir...” (M.Jesus-Izaera).

“Encarecer Deusto y convertirlo en una zona para privilegiados es algo que nos afectará a todos y que yo no pueda seguir viviendo aquí. Es una realidad que tenemos que ser conscientes y la gente no lo ve. Yo creo que mucha gente el hecho de tener una propiedad creen que ya les garantiza la vida en el barrio, lo cual no es necesariamente verdad... ¿Qué solución van a dar a la gente mayor que está viviendo con rentas antiguas? (En Zorrozaurre) Te pueden dar otra casa, pero pagar un alquiler actual es imposible... Te queda una sensación bastante chungu de que no tiene mucho futuro en mi vida Bilbao, probablemente no voy a vivir aquí en unos años porque seguramente no me lo voy a poder permitir. Y como yo muchos otros jóvenes.” (Gorka-Gazte Lokala)

2.3. Deustu, euskal kulturaren nortasunari atxikirik

Argi dago hiri edo auzo baten ez dela nortasun edo identitate kultural edo politiko bat bakarra aurkitzen, baina gure kasuan ez gara erratzen esaten baldin badugu, Deustua euskal kultura eta euskararen errekonstruzioari loturik ekoiztu duela bere nortasun kolektiboaren seinale nagusiak.

Historikoki euskal kultura mehatxaturik ikusten da, eta ekintza kolektiboak birbizitu behar izan du, aurreko garai diktatorialetan galdutako altxorra. Eta hori jaietan nabarmentzen da, baina euskarazko auzo aldizkariekin (Prest!) ere, edo ikastola, dantza taldeak edo euskaltegiekin:

“Ulertzeko historia apur bat egin behar da. Zergatik dagoz euskarazko aldizkariak soilik Santutxu eta Deustuan? Hor istoria bat bazegoen, Deustu herri garrantzitsua zen... Beste elementu batzuk ere lagundu dute, dena dago lotuta egia esan, Santutxun ikastola bat dago, hemen beste bat... Jaiak, gero kirol elkarteak. Osagai asko eduki dituz-

te oinarri oinarritzko nortasun bati eusteko eta elkar elikatu dira era berean. Deustun lehen zegoen giroa..., jai potenteak ziren bere garaian. Proportzioz jaitsi dira, hainbeste urte Aste Nagusia egin zenetik...



8. irudia: Deustuko aratustek 1977an, kalea hartzeko gogoak geldiezinak ziren.

Deustuk mantendu izan duen bizi-giro hori, bizitzeko gogo apurra islatzen da gauza askotan. Esaterako jaietan Deustuko bandera jartzen da, urte asko daramatza ipintzen. Alkate eta udaltzainek desfilatzen dute lehenengo modura, lehen ere udalak desfilatzen zuen...Elementu oso inportanteak daude herri mugimendu mailan mantendu direnak, eukararen inguruan oso nabarmena da esaterako.

Hiru dantza talde daude hor, Biotz Alai, ikastolak daukana eta San Inaziokoa. Gero jaietan, jai batzordeak nahiko osasuntsu bizi dira. Eta jarraitzen dugu lanean ezer kobratu barik...Gero Larrako eta Matxitxo elkartu ziren, bi euskaltegi eduki ditugu eta lan dezente egin da euskalduntze prozesuan. Batzaldi itxi zen zoritxarrez ere, dekanoa urte askoz zegoen, oso garrantzitsua izan zena euskalduntzean. Euskal elkarteak ere, Euskara dariola eta Berbaizu, orain, nolabaiteko jarraipen bezela. Itzartu eta Prest aldizkariak ere hor daude. Berbaizuk orain

lokal propioa du, Txantxiku gazte taldea... nabikotxo egiten dau.”
(P.Alaña)

“En los 70 la vida social en Deusto había, existía polarizada alrededor de la asociación de familias... Estaban el grupo de cultura, el grupo de mujeres, el grupo de fiestas, una mini coordinadora de fiestas... había media docena de grupos de ese estilo en dónde tratábamos de recuperar las fiestas. Unas fiestas que en Deusto siempre habían sido muy importantes... Por ejemplo, el Olentzero se recupera, los carnavales en Deusto se están celebrando desde el año 77... En Deusto en aquella época empieza a florecer un poco la cultura euskaldun..., hay un grupo alrededor de la Iglesia Zuribarri, es gente que hoy tiene cerca de 58-60 años, estos empiezan a ir al monte, es gente que funda el Bihotz AlaiI. Un poco en esos años 60-70, ir recuperando todos esos valores desde la gente que viene de las asociaciones de vecinos que no existían o no se podían desarrollar o se sabía que tenían que existir. Esta época es una época muy clara del desarrollo de la cultura euskaldun. Y yo lo he visto, es lo que he querido reflejar en el libro en la medida que he podido. Pero yo creo que eso sí que es cierto que ha pasado históricamente en Deusto en un periodo histórico muy corto como pueden ser 10-15 años”. (Txema Luzuriaga)

Euskara, jaiak eta kirola dira Deustuko euskal nortasun kulturala errebin-dikatzeko ardatzak, baina prozesu identitario hauek ez dira linealak, kontrae-saleak eta dialektikoak baizik. Une kritiko eta desadostasunak daude eta momentu bateratzaile eta indartsuak ere, elkarlaguntzak eta banaketa sekta-rioak, parte-hartze zabal eta anitza eta endekatze kontsumistak ere. Dena sar-tzen da eta kontraesanekin, Meluccik dion moduan, tokiko erkidego batetiko atxikimendua sortzen da.

“Luego culturalmente, cada vez se oye más euskera por la calle, la ikastola cada vez es más potente. Yo cuando empecé en la ikastola de Deusto empecé en los bajos de San Felicísimo, hace ya unos veinte años... Es un poco lo que está pasando en todos los sitios, o sea, el hecho de que la gente cada vez esté menos implicada con el tema de la cultura vasca, en lo que a mí me toca con las danzas creo que pasa en todos los sitios y no solo aquí en Deusto” (Maidier, Bihotz Alai)

Euskal Herriko beste hiri, herri eta auzo askotako kasuetan bezala, euska-ra eta toponimia eztabaida eta kontrasterako gai polemikoak dira. Deustuko Erriberaren izena adibidez, orain instituzioetatik modan jarri den “Zorrozaurre” markarekin lehian.

“Esto siempre ha sido la Ribera de Deusto. Para la gente que lleva toda la vida aquí, y sólo llevamos aquí seis años... La gente que está toda la vida lo llama la Ribera de Deusto. Yo siempre digo la Ribera, simple-

mente o la península. La forma en que la gente lo llama, es así” (Almudena)

“Es un error porque la Ribera la componen tres calles, Ribera de Botica, Ribera de Deusto y Ribera de Zorrozaurre y ahí el Ayuntamiento ha metido la pata, porque Ribera de Zorrozaurre es ya el final, lo que está ya enfrente de Zorroza, entonces ahora donde se celebran las cosas eso es Ribera de Botica, y la Ribera de Deusto inicia a la altura de Goyoaiga”. (I.Villota)

2.4. Deustu bat edo batzuk?

Deustu gainean gure begiak jartzen ditugunean edo jendeari mikrofonoa hurbiltzen diogunean ere, betidanik Deustu bat baino gehiago egon dela ematen du. Duela ehun urte Deustu baserritarra eta industrial elkarbizitzen ziren, Goikoalde nekazaria eta Behekoalde langilea, non proletario industrialen fabrika eta etxebizitzekin batera edo gertu, familia aberatsen jauregi eta txaletak ziren, gaur egun 4 edo 5 auzo bereziak kabitzen dira Deusturen baitan.

“De aquellos años, queda Bidarte, quedan restos del palacete de Sarriko, de los Condes de Zubiria, queda una casita de Villa Maria Luisa al lado de Ibaigane, después de pasar La Salle de estilo interior francés del s. XIX [derribada por el Ayuntamiento en 2005]. No queda más... y hacen grandes mansiones, a bueno si quedan las de la Cava al lado de la universidad, las de los Ybarra, eran palacetes que construyen los Ybarra, uno de ellos para la beata Rafaela de Ybarra.... Esa burguesía de Bilbao que entendían que Bilbao era insalubre y pasan a vivir muchos al Campo Volantín... y luego pasan a Deusto”. (I.Villota)

Frankismorekin dibertsitate hau ugaltu egin zen. San Ignazio eta Arangoitiko auzoen eraikuntzarekin eta gero kanalaren obrarekin, bizpahiru azpi-auzoak sortuko dira, identitate bereziekin, elkarte eta jai propioekin, eta han idiosinkrasia partikular batzuk sendotzen dira, auzo baten non politiko zein kulturalki aktibistak ez dira eroso sentitzen Bilboko organigramarekin.

Harreman eta desberdintasun hauek, auzoen arteko sentitu eta eragiteko modu desberdinak oso argi ikusten dira Erribera-Zorrozaurre auzoaren birmoldaketaren kasuan.

2.5. Bilbo: Muga, helmuga eta ispilua, beti aurrez-aurre

Bilbo eta Deustuaren arteko bizitza eta nortasun harremanak horrela dira, buruz buru aurkitzen diren bi komunitate, bi hiri espazioaren artekoak, Sevilla eta Triana moduan, Ignacio Villotaren esanetan.

Horrek esan nahi du bion artean muga historikoa egoteaz kanpo, Deustua administratibo eta politikoki handiagoa den instituzio batek irentsi egin zuela,

baina ente hori bere Gargantua izateaz aparte, bere ispilua dela ere, bere baitan ematen diren eraldaketa eta transformakuntzen gidaria. Bilbo deustuarrentzat muga espaziala da ere. Lehen hiri komertzial eta industrialaren dena, oraintsu hiri moderno, kosmopolita eta garai globalean sartzeko eraldatu behar dena. Deustuarrak Bilbon izandako azken 20 urteko aldaketa erraldoietara begiratzen diote eta alde positibo zein negatiboak ateratzen dituzte

“Creo que Bilbao es una ciudad pequeña, muy cómoda y que tiene todo al alcance de la mano... O sea, que puedes hacer un montón de gestiones en el mismo día porque todo está cerca... Sobre todo si vas a pie o en bicicleta. Puedes recorrerla perfectamente, es una ciudad que tiene de todo y que realmente ahora mismo yo creo que ya tiene de todo, incluso en el sentido cultural, y que se puede vivir... no es una mole como Madrid o Barcelona... (Maria Jesús y Cari)

“Bilbao es una gozada. Creo que ha cambiado sustancialmente. Conozco la Campa de los Ingleses, lo que es Abandoibarra, he jugado con los chavales, y ver la evolución que ha tenido es... Se puede criticar Zubiarte, sobre si te gusta o no te gusta, puedes decir que es un monstruo o lo que sea, pero que se ha trabajado... si, a mi me parece que con este alcalde se han dado unos empujones cualitativos. Algunos dicen que Ortuondo hizo mucho, pero creo que hoy Bilbao tiene un peso específico... ¿Qué el punto de partida es el Guggenheim?, pues, probablemente, pero yo creo que hoy a Bilbao se le mira con simpatía... y si no hubiera sido por el aspecto político... que durante algunos años hemos tenido... a ver si ahora entramos en el terreno de la paz y conseguimos ser bien vistos. Bilbao, lo mismo que Deusto... Deusto me parece que es un lugar privilegiado.. A Bilbao se le critica que está todo levantado, pero... Bilbao está cambiando. De no hace mucho tiempo para aquí está cambiando. Valoro los cambios de forma muy positiva, muy favorablemente”. (J.Legina- Asoc. Vecinos Deusto)

“Aldaketei dagokionez, ba guztiak bezala oreka bat daukate. Onak, ba indarra eman diote herriari, Guggemheinek bezela. Baina bestalde, kultura aldetik oso negatiboak izan dira, ingelesa eskatzen da dendetan eta ez euskera. Batetik lortzen dena bestetik galdu. Gero udal politika, ekitaldiak antolatzen hotelak betetzeko... life bilbo, skalestric... izugarriak dira. Hori egitea Estatu batek, Madrilen adibidez, ba ez da ezer gertatzen. Ingelesa bultzatu abal duzu eta dirua eman baina hemen, emakumeak bezala zapalketa bikoitza da. Alde batetik, munduko ingelesaren orojalea (kultua etab) eta bestalde, Euskal Herrian bezala... erdera ez ikusteko ingelesa hartu dute, arazoa sabiestu nabiez (BEC esaterako) . Baina gauza bera da. Hor dauden elementuetan ez dugu ezer lortu, gebiengoa gara politikoki baina kulturalki, maila orotan, gauza arraro asko daude, alderdi orotan. (P.Alaña)



9. irudia: Itsasadarraren irudi berria, Guggenheim Museoa, Euskalduna Jauregia eta Zubia eta iraganeko arrasto bakarra, Carola Garabia hain zuzen ere.

Bukatzeko, Deustu eta Bilboren arteko ezinbesteko sinbiosiarekin amaitzeko gure hitzaldietan agertu den instituzio politiko bat ekarri nahi dugu gogora. Deustun eta beste Bilboko auzoetan dagoen tresna politiko parte-hartzailea: Distrito Kontseilua.

Bilboko Distrito 1 da Deustu eta 80.hamarkadako hasieratik martxan dago, auzotarren parte-hartze dinamika instituzionalen erdigunea izanik eta gu, Parte Hartuz-eko kideak garenok deustuarrekin batera gure buruari galdetzen diogu ea non dauden demokrazia parte-hartzailearen dohaiak, auzo bizigarriagoa edukitzeko eta Bilbo eta Desutueren arteko harremanak orekatzeko.

“PSOEk bere garaian, barrutien antolaketa egin zuen eta onurak ekarri zituen. Antolaketa bera existitzeak obitura bat bazegoela esan nahi du, gauza batzuk hurbilago planteatzeko. Hor elementu bat egon da jendea elkartzeko oso handia izan dena; jubilatutak, gazteak... bilerak egiten dira, jendeak hurbiltasun bat eduki du eta badago barrutiko kontseiluak eta balio izan du hainbat gauza planteatzeko, bideratzeko. Beti egin daiteke hobeto baina ezer ez dagoenean beti pozik hartu behar dira gauzak. Modu konstruktiboan. Hurbildu da pixka bat, udala oso urrun geratzen zen eta esparru hau hurbildu egin da. Gero kiroldegi

txikia egin zuten, San Inaziokoa konpondu... baliabideak bobetu dira apurtxo bat, kirol mailan. Parke mailan, sarriko zabaldu zen eta Botika Zabarra, hori ere baloratu beharko da". (P.Alaña)

"Desde mi punto de vista, El Consejo de Distrito no funciona porque no quieren que funcione. El Teniente Alcalde está ahí para imponer sus políticas. Ésa es su función. Todos los partidos tienen diferentes intereses, diferentes clientes... todos quieren imponer su política. Entonces la participación, no puede funcionar. Por eso la única posibilidad de conseguir lo que quieres es trabajando por tu parte y eso es lo que hemos hecho en la Ribera... Todo el proceso participativo que hemos llevado a cabo no ha tenido valor, no ha tenido valor decisorio, lo que estábamos buscando. Pero sin embargo hemos encontrado a otras personas más abiertas, y técnicos que al principio nos han rechazado socialmente y que luego se han empezado a abrir cuando han visto que somos gente seria. Hemos encontrado de todo, pero en general, ha medida que he tenido más relación con técnicos y políticos, las relaciones sociales han mejorado". (Robert y Almudena)

Deustun ikusi dugun legez, pertsona edo talde baten nortasuna, egunero-kotasunean "gu eta eurak" markatzen duten perspektiba dikotomikoak lantzen eta elikatzen eraikitzen da.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA (dir.) (2003): *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social*. Vol.II: 1902-1937. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao.
- AMEZAGA (1995): *Herri Kultura: Euskal Kultura eta Kultura popularrak*. Bilbo: EHU/UPV.
- AUGÉ (2008): *Los “no lugares” Espacios del anonimato. Una antropología de la sobremodernidad*. Gedisa Editorial, Barcelona.
- AYTO. BILBAO (1988): Hiritarrekiko Harreman eta Deszentralizazio Saila. Área de Relaciones Ciudadanas y Descentralización. En “Bilbao” nº 3. Enero 1988.
- AZPIRI ALBISTEGI (2000): *Urbanismo en Bilbao. 1900-1930*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco.
- BARCENA (coord.) (1998): *Bilbao Nora zoaz? ¿Es sostenible nuestro modelo de ciudad? Reflexiones para un atlas medioambiental del Bilbao Metropolitano*. Bilbao: Eki/Erreka/Bakeaz.
- BILBAO-GOYOAGA (2005): *El genio de la Ría. Una evocación desde la Ribera de Deusto*. Temas de Euskal Herria. Muelle de Uribitarte Editores. Bilbao.
- BORJA (2002): *La ciudad y la nueva ciudadanía*. La Factoría. Febrero-mayo de 2002.
- COLECTIVO AUTÓNOMO DE TRABAJADORES (1985), *La batalla de Euskalduna. Ejemplo de resistencia obrera*. Madrid: Ed. Revolución.
- DE ANDRES, Y MAISUETXE (1980): *El movimiento ciudadano en Euskadi*. Donostia: Txertoa.
- EGUIRAUN Y DEL VIGO (2002): *Rekaldeberri: Historia y conflicto*. Bilbao: Ediciones Beta.
- EGUSKIZA Y BACIGALUPE (2004): El guardián de la Ría. En “Bilbao” Enero 2004.
- ESTEBAN (2000): *Bilbao, luces y sombras del titanio. El proceso de regeneración del Bilbao Metropolitano*. Bilbao: UPV-EHU.
- GARCIA MERINO (1987): *La formación de una ciudad industrial el despegue urbano de Bilbao*. Oñati: IVAP.
- GEREÑO (1992): “Deusto aldizkaria”. En “Bilbao” Nº 48 Marzo 1992.
- ITURRIZA, JUAN RAMÓN DE (1981): “*Historia general de Vizcaya*” con ampliación de Manuel de Azcarraga; prólogo de Ana de Trueba. - Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- JUANES (2007): *Ibarrekolanda, historia reciente de un barrio*. Sin publicar.

- LUZURIAGA (1999): *Deusto en imágenes*. Temas Vizcaínos. Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbao.
- (2005): *Deustuko Argazkiak 1. liburua: Deustuko Elizatea. Fotos de Deusto 1º libro: La Anteiglesia de Deusto*. Ediciones Beta III Milenio, SL. Bilbao
- (2006) *Deustuko Argazkiak. Bigarren liburua: Herria*. Ediciones Beta III Milenio, S.L. Bilbao
- MIONA (2001): Deustuko auzoak en *Prest! Deustuko Aldizkaria*. 57 zenb. 2001. Otsaila.
- MORENO SUMADLE (2005): *Bilbao declive industrial, regeneración urbana y reactivación económica de un espacio metropolitano*. IVAP. Oñate 2005.
- NORA (1984-1992): *Les lieux de Mémoire* (7 vols.). París: Gallimard.
- RINCÓN (1989): Deusto algo más que un barrio. El eco de los barrios en: En “Bilbao”.
- TELLERIA (2008): “Las nuevas redes del movimiento social urbano” en La red en la ciudad. Anuario de movimientos sociales, Ibarra y Grau. Icaria, Barcelona.
- (2008) “Deusto y Recalde: Historia e identidad contada por sus protagonistas”. Grupo de Investigación Parte Hartuz. Ayuntamiento de Bilbao-Bilboko Udala.
- UGARTE (1999): *Historia de Bilbao. De los orígenes a nuestros días*. Editorial Txertoa. Donostia
- URIARTE (2006a): La Ría y el Canal de Deusto. “Bilbao” Marzo 2006.
- (2006b): El patrimonio humano de la Ría. En “Bilbao” octubre 2006.
- URRUTIA (1985): *El movimiento vecinal en el área metropolitana de Bilbao*. Oñate: Instituto Vasco de Administración Pública.
- VILLOTA Y ALTUBE (1987): *Deusto del Ayer y de hoy*. Ipar S.C.L. Bilbao.
- ZULAICA (1999): “*Miracle in Bilbao*”: *Basque in the Casino of globalism* en William A Douglass, Carmelo Urza, Linda White y Joseba Zulaika, eds. *Basque Cultural Studies* (Reno, University of Nevada Press) 202-274.

